

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ibarra



Aurkibidea

Udalerria: Ibarra

Sarrera



Gipuzkoako ekialdean eta Tolosaldea eskualdean dagoen udalerria da. 1802an lortu zuen burujabetza Tolosatik. 5.03 km²-ko azalera. Tolosa du ipar eta mendebaldean, Villabona-Amasa iparraldean, Berrobi eta Belauntza ekialdean eta Leaburu hegoaldean mugakide ditu. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da, Beterrikoa.

- **Biztanleak:** 4.268
- **Euskaldunak:** %62,4

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **9**
- Pasarteak: **123**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **53**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Dionisio Amundarain Alegria (1922)



Ibarrako Bizkardo baserrian jaioa da Dionisio. Sei senidetan laugarrena, betidanik izan du baratzerako zaletasuna. Bera gaztea zela, etxean baratzetik bizi ziren, neurri batean. Izan ere, landarea saltzen zuten. Soldaduskan izan zenean ere, buruzagiek baratzezaina behar zutela eta, bera aritu zen lan horietan, hasiera batean kanpotik landarea erosi behar ez izateko, eta ondorenean baita landarea saldu eta diru pixka bat ateratzeko ere. Gerora, esnea biltzen eta banatzen aritu zen. Tolosaldean esnea bildu, eta Donostian banatzen zuen, Gros auzoan; bizikletaz lehendabizi, eta kamioiez gero. Erretiroa hartu zuenetik, baratzean aritu izan da lanean. Horrek ematen omen dio osasuna.

Juanito Etxeberria Ganzarain (1935)



Ibarrakoa zuen ama, Maria, eta Elduaingoa aita, Juan. Ganzarain Villan jaio zen. Zortzi senidetan seigarrena, Zumeko baratzean hasi zen lanean 10 urterekin. Bertan lan eginez atera zuen bizimodua aurrera, Tolosako Gorriti plazako galdategian hasi arte. Gerora, Xixterone izenpean, aroztegia jarri zuen anaiarekin batera, eta bertan aritu zen lanean 10 urtez. Adunako Goñi torloju-fabrikan sartzeko aukera izan zuenean, ez zuen zalantzarik izan; eta bertan egin zuen lan, jubilatatu zen arte. 29 urte zituen, [Mari Carmen Goikoetxea Etxeberria](#)ekin ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituen. Ehiza, arrantza eta pilota izan ditu zaletasunik handienak.

Maria Dolores Etxeberria Zalakain (1929)



Ibarrako Ibarburu baserrian jaioa. Gerra zibila hasi zenean zazpi urte besterik ez zituen, baina ondo gogoan ditu orduko kontuak. Baserritik bizi ziren orduan Maria eta bere familia, eta baserritik bizitzen jarraitu zuten ondoren ere. Hogeita hamabi urterekin Berrobira ezkondu zen eta azken urteetan bertan bizi da.

Fernando Ezenarro Gorostidi (1925)



Fernando Ibarrako Intxausti baserrian jaio zen, aita zuen bertakoa, ama, berriz, Leaburuko Txarama auzoko Tolosa etxekoa. Sei senideetan zaharrena eskola 12 urte zituela baserri lanetan aritzeko, lan ugari egin zuen elektrizista lanetan hasi zen arte. Tolosan zuen lantokia eta ezkondu zenean bertara joan zen bizi izatera.

Luisi Ezenarro Gorostidi (1928-2018)



Intxausti baserrian jaio eta bizi izan zen 26 urte arte. Ibarrakoa zuen ama, Teresa; aita berriz, Txaramakoa, Tomas. Attona zen Ibarrako sakristaua eta hamaika aldiz tokatu zitzaion Ibarrako elizako kanpaiak jotzea. Zortzi senidetan laugarrena zen eta gogor lan egin zuen baserrian txiki-txikitatik. 8 urterekin neskame joan zen Ibarrako etxe batera eta bertan aritu zen lanean 18 urtez. Urte hartan, Mateo Goya Zarauzekin Villabonara ezkondu zen. Bi taberna ireki zituzten kale berrian, "Hor konpon" eta "Goya". Sukaldean aritzen zen lanean Luisi eta hala pasa zituen 30 urte, pozik eta gustura. Villabonako Jubilatatu Elkarteko lehendakaria izan da urte askoan, eta sukaldaritzako eskolak ere eman izan ditu. Hiru seme-alaba izan ditu.

Miren Telleria Elizaran (1932)



Igeldokoa zuen ama, Josefa Elizaran. Aita, Urkizukoa, Inaxio Telleria. Zubiaurren jaio eta bizi zen 22 urte arte, gainerako 7 senide gazteagoekin batera. Etxean sagardoa egiten lagundu zuen txiki-txikitatik, mahatsaren gainean dantzan. 14 urterekin, Tolosako Toquillas lantegian hasi zen lanean 30 urte bete arte. Ibarako Juan Cruz Iraolarekin ezkondu eta 2 seme izan zituen. Zubiaurre batzokia zeneko garaia kontatu dizkigu, baita Ibarako beste hainbat kontu ere.

Iginia Zelaia Larrarte (1936)



Arginartatzen jaio, hazi eta bizi izan da beti [Pakita](#) ahizpa eta [Martzelino](#) nebarekin batera. Hamar senidetan zazpigarrena, senideek baino aukera gehiago izan zuen eskolara joateko. Erdaraz hobeto ikasteko, eskola partikularra jasotzera joan zen Zumera, gurasoek hala eskatuta, etorkizun hobea jasotzeko asmoz. Gaztea zela, 10 urtez Tolosana paper-fabrikako nagusiaren etxean neskame-lanetan aritu zen. Ondoren, umezain izan zen zortzi urtez. Baserrian ere lan egin du txiki-txikitatik, esnea banatzen, besteak beste. Dantzarako ikaragarritzko zaletasuna izan du betidanik. Gazte denbora oso zoriontsu bizi izan duela dio, baita horrelakorik ez duela ikusten inguruko gazteen begiradetan ere.

Martzelino Zelaia Larrarte (1935)



Arginartatzen jaio, hazi eta bizi izan da gaur arte bere arreba [Pakita](#) eta [Iginia](#) rekin batera. Hamar senidetan zortzigarrena, senideek baino aukera gehiago izan zuen eskolara joateko. Erdaraz hobeto ikasteko, eskola partikularra jasotzera joan zen Zumera, gurasoek hala eskatuta. Gaztetxoa zela, osabaren etxean bizi izan zen urte pare batez, haiei lagunduz; hala, osabarengandik egurra lantzeko afizioa jaso zuen. 13 urterekin, lehengusuaren aroztégian hasi zen lanean Tolosako San Esteban auzoan. Ondoren, Belateko eta Leitzako aroztégietan aritu zen lanean. 35 urteren bueltan, bere aroztégia jarri zuen Amezketan. 62 urterekin erretiratu arren, oraindik ere, elkarriketa garaian, gauza txikiak egiten ziharduen. Arotzaren ogibidea azaldu eta arotzaren nahiz baserriko tresnen izenen berri eman digu.

Pakita Zelaia Larrarte (1931)



Izaskungo Bizkaetxekoa zuen ama, Zelestina Larrarte. Aita, Pedro Zelaia, Belauntzako Etxeberrikoa zen. Bertan jaio zen Pakita; baina, oso txikia zela, Ibarako Arginartetxe baserrira maizter joan zen gurasoekin. Gerora, etxea erosi zutenez, bertan hazi eta bizi izan zen baserriko eta etxeko lanetan gogor jardunez. Josteko eta bordatzeko zaletasunari jarraituz, Tolosako Amparitorenean egin zituen ikasketak. Neba zaharrenak hil zirenean, ordea, etxera itzuli behar izan zuen gurasoei laguntzera. Hamar senidetan bosgarrena, [Martzelino](#) anaiarekin eta [Lginia](#) ahizparekin bizi da gustura.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Amonak ikasitako bertsoak eta bertsopaperak

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Zalakain, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: IBA-001/036
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 01:18:07. **Bukatu**: 01:19:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Amona artzain ibilia zen, eta bertsoak ikasten aritua garai hartan. Tolosan bertsopaperak saltzen zituzten gizonak ezagutu izan ditu Maria Doloresek; Pernando amezketarraren bertsoak izaten ziren.

Transkripzioa

- Ta sutondon zuen etxen ipuiak kontatzeko zalia al zan amona?
- Ez zun amonak hola ipuiak kontatzeko... Artzaia... ardi zai ibili zan.
- Bea?
- Bea, Amezketaua zan ta, ardi zai beti. Eta esaten zun nola bere aitak ematen zizkioten bertsok erositak Tolosatik, eta bertsok ikasten zittuela ardi zai zeudela. Eta Markesaren alabanak bazekizkin, kantatzen zittun, `Markesaren alaba´. Nik'e asko nekizkin e! Ahaztuta dauzket, ez deulako irakurtzen. `Markesaren alaba´.
- Beak kantatutako bertsok ikasten zenituen zuek'e?
- Bai! Ikasi... aittu ta ikasi're bai. Bai, zeatzen giñuzen, `Markesaren alaba´k eta. Beti bertsuak ematen omen zizkien aitak. Eta harek esaten zigun guri, amonak esaten zun, zea, nola esaten zuen... Bai, bai, bai, bai, amonak esaten zun, artzai zeola. Hoi [...] zazu e! Ordun... Nik ezautu dittut Tolosan gizonak bertsopaperak saltzen.
- Bai?
- Bai, bat hanka motza zan. Ez dakit nun... nik ez dakit nuguia izango zan.
- Hanka motza?
- Bai, baiño hanka zea ibiltzen zun e, holako gauz bat hankan sartuta. Hanka motza, baiño ez hola hanka postizua jarrita e, aparatoa jarrita eta hola punta xamarren, eta... hola juten zan, hankan gañen hola juten zan.

Ta bersok saltzen. Ta erosi're bai beai.

- Zeiñen bertsuak izaten zian edo ze bertso?

- Amezketarranak, Fernando Amezketarranak asko. Eta ez dizut esango zenbat bertso ta hola baiño... Gui amonak hoi esaten zigun, artzai, ardi zai, ta aitak ematen zixkiola bersuk.

- Denboa pasa.

- Bai, [pasatzen zuen], beti bersok irakurri ta bertsoak zeatzen ta hola. Ta guk amona, hola, nik hola ezautu nun amona gure etxen.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Osaba tuberkulosiarekin eta etxean inork jakin ez

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Zalakain, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** IBA-001/038
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:20:51. **Bukatu:** 01:23:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Osaba tuberkulosi kutsakorrek jota hil zen, eta hil ostean konturatu ziren etxeak. Orduan medikuak aztertu zituen familiako guztiak, eta beste hainbat neurri hartu zituzten osaba egondako gela desinfektatzeko.

Transkripzioa

- Ta osaba ni etxen neola hil zan, ta neoni bakarrik neola. Gaiñea, ama aillatu zan hamabitan kaletik etxea beti bezela, ta gaixo zeon ta, kanpotik buelta inda etxea etorri zan, ta izugarritzko arnas hots haundiye. „Ama — aillatu zai neon— ama, osabak ikeragarritzko arnas-hotsa dauke” eta “Ui! zoaz azkar goitikan behera. Esaiozu apaizai ta medikui etortzeko, azkar! jun goitik behera!”, ta hala jun. Ez dakit zenbat urte izango nittun. Zenbat izango nittun, ba? Ta etortzeako osaba hil in zan. Gaixo zeon, e.

- Ta amak nola antzeman zion, ikusi o...

- Ba, ez, amasa hua emen zan, zea, esaten zaio, azkeneko hotsa, hola, karraka bezela esaten zaiona, azkeneko arnas-hotsa, esaten zaiona, hola, zurrunka, zurrunka esaten zaiona, hoi. Nik ez nun pentsatu hoi izango zunik, baiño [...]. Geo, zea, gaiñea hua hil zanen, denok jun giñen mediku batena Tolosaa gaztek, ta ama ta're ustet baietz, eta rekonozimentua in ziguten. Bai. Emen zaukan, esto... “tuberculosis contagioso”. Ez dakit bagiñikiun; hoi gero zeatu zan.

- Ta danok aber gaixotasuna bazenuen.

- Denok, denok, ume guzik, bai, denok jun giñen.

- Noa jun ziñaten?

- Tolosaa, hortako espezialista batena, petxuko espezialista batena jun giñen Tolosaa. Oain ez naiz gogoatzen ze klinika izango zan ordun o, o noa jun giñen, anbulatorioa o, batea o, hoixe ez dauket gogon baiño denok jun giñen.

- Ta ze in zizuen, hola, petxuko arnasa-hotsa aittu ta...?

- Bai, hotsa aittu-ta in ziguten, bai. Ordun ez det uste plakaik-eta atea zigutenik.

- Zu ordu arte... zu jun ziñan sekula medikuta, hola, ordu arte?

- Ez. Ez dakit jungo nitzen, orduan medikuta jungo nitzen...

- Ta harek esan zizunian alkandora pixkat askatzeko ta...
 - Askatu ez, kendu. Kendu ta zeatu.
 - Ta?
 - Badakizu, in in behar zan ta. Ordun gauza haundie zan hoi. Baiño bildurra're bai, gaixo ote genden, ja, bildurra're bai, gaixo ote genden. Eta gero in ziguten, osaba eon zan habitaziyua, Tolosako ayuntamentuak biali zizkigun herriko gizonak o ez dakit zer izango zien, in zuten dena paperakin leiyok eta denak papera "papel de goma"kin, "papel de celo" hoitakokin dana itxi, kuartoko atia're bai, jarri zuten ontzi baten likido bat kuarton, ta desinfektatu zuten kuartoa. Hoi in ziguten guri. Pentsatu noizko gauzetaz zer dauketen gogon.

2.2. Baserriak su hartu zienekoa

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Zalakain, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: IBA-001/040
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 01:33:51. **Bukatu**: 01:35:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Baserriak su hartu zuenekoa kontatzen du: ganbaratik hasi zen sua. Konturatu zirenerako, animaliak ateratzen saiatu ziren, baina asko galdu zuten.

Transkripzioa

- Tximnik, tximnik su hartu zun. Igandia zan. Tximnik su hartu zun. Ustez itzali gendun, ez [gendukan] suik, ta atsaldeko bostetan, bua! Etxe guztiya sutu zan. Ganbaran orbela, esan dizutena, hoi, aziendantzako ta, eta horrek nunbait su hartu zun, ta horrek pixkana-pixkana lana in, azpitik, hola in zun, ta gero haizia atea zun garaizian buf! in zun. Dana egurre, teilatu ta ganbara ta behiak eta denak egurrek. Baiño dena egurra, e! Eta ze ordubete... ordubete ez zun ingo suk. Goiak behia jo zun seittun. Teillatua egurre, mandioa egurre, behian... bakar-bakarrrik etxen. Gizonak, gaiñez, komuniyua in behar zun, bigarrenak, semek, ta esan ziten "Emakumek badijoazte. Zu oaindik hemen al zare?", "Oain jungo naiz". Ixaxkun, alaba zaharrena, korrika, karraxika, handik: "Ama! Sue! Sue! Sue!" ta leihotik sue ateratzen ganbaratik. Ta gu, gizona ta biyok, beheran.

- Ezta enteatu're.

- Seittun, seittun zea, aurrena animalik ateatzea, haik askatzea, ta bat geldittu zan askatu gabe, ta han erre zan, buelta eman zion katek. Ta iñor ez han, jaiye zan ta, jai atsaldia, ta iñor ez. Gero jendia etorri zan, baiño ez zeon sartzeik etxen e, ez zeon ezer itteik. Dana, dana, dana zeatu zan.

- Dana berritu zenduen gero?

- Bai, berrittu gendun, baiño ganauentzako. Nola genduken pisua, ez gendun baserriya in. Uain daukau inda, baiño ganauentzako ta ganbara ta zaborrantzako ta, dana hola daukau inda.

- Ene! Argi e! bazpare lanparak itzaliko ditut.

- Ze ingo deu, ba? Suertea.

- Ene, joe.

- Eta, hala, gero handikan...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Etxeko eginkizunak eta lanak (IBA-001/002)

7 senide ziren, Maria Dolores zaharrena. Horregatik, senide gazteak zaintzen zituen eta ama esnea saltzera Tolosara joaten zenean etxean gelditzen zen. Udan mendira joan behar izaten zuten ganaduarentzako belarra ekartzera; neguan, ordea, garoa eta orbela biltzera joaten ziren basora. Belarra segaz ebakitzen zuten, eta idi eta gurdiekin ekartzen zuten.

2. Etxerako belarra eta janaria (IBA-001/003)

Belarra ganbaran edo meta eginda jasotzen zuten. Meta egiteko edozein egur erabiltzen zuten. Meta egiteko denek hartzen zuten parte: Maria Doloresek bazkaria eramaten zuen normalean astoarekin. Urte guztian babarrunak jaten zituzten etxean; ogi gutxi zeukaten etxean eta taloa askotan prestatzen zuten. Ogia meriendarako gordetzen zuten.

3. Aurrerapenak etxean sartu bitartean (IBA-001/005)

Senide zaharrena izanda, etxeko lanez arduratzen zen. Ur korronterik ez zuten etxean, baina bai bozadera. Aitak ez zituen gustuko aldaketak: irratia, ekonomika...

4. Ur korrontea etxean izan arte nola moldatzen ziren (IBA-001/006)

Ur korronterik ez zuten izan etxean umetan; noiz ekarri zuten azaltzen du. Ur-depositu bat bazuten etxean, eta euri-ura pilatzen zuten bertan ganaduari emateko, sukaldeko lanetarako... Etxetik gertu bazen putzu bat neguan ura epel-epela egoten zena. Arropa nola garbitzen eta lehortzen zuten azaltzen du.

5. Arroparen arteko bereizketak; klase partikularrak (IBA-001/007)

Arroparen artean bereizketak egiten zituzten: batzuk astegunean ibiltzeko izaten ziren, eta besteak jaietarako. Komunio handia egin ostean, eskolara gutxiago joaten ziren. Emakume batek bere kasa jarri zuen eskola Ibarran, eta bazkalostean joaten zen hara Maria Dolores, asko gustatzen baitzitzaion ikastea.

6. Baserriko lanari esker bizi (IBA-001/011)

Etxean behiak eta idiak zeuzkaten. Idiak lan guztietarako erabiltzen zituzten; behiak esnetarako eta txahalak hazteko izaten ziren. Baratzea beti ezagutu izan du etxean, eta horko jeneroa saltzeari esker ateratzen ziren aurrera. Azokara joateko ohiturak azaltzen ditu.

7. Tolosako azokaren egitura (IBA-001/012)

Tolosako azokaren egitura nolakoa zen azaltzen du: salgaiaren arabera, multzoak egiten ziren saltzaileen artean. Saltzaile asko egoten zen orduan.

8. Mandatariak ezinbestekoak merkatuan (IBA-001/013)

Mandatariak goizean goiz etortzen ziren inguruetatik: haiek eramaten zuten jenero onenetakoa. Haiei esker salmenta onak izaten zituzten saltzaileek. Mandatari haiek nongoak izaten ziren azaltzen du: emakume ausartak eta abilak ziren.

9. "Nafarrak datoze!" (IBA-001/015)

Gerra hasi baino lehen, bi gizon pasa ziren etxe paretik eskopetak eskuan zituztela. "Nafarrak zetoze!" esaten zen orduan; azkenean, mendiz iritsi ziren Ibarrara Izaskundik barrena. Nafarrak zetoze! batzuk poztu eta besteak beldurtu egin ziren.

10. Nafarrak sartu zireneko jarrerak Ibarran (IBA-001/016)

Nafarrak zetoze!, batzuek poztu eta besteak beldurtu egin ziren. Nazionalistak zeuden agintean gerra aurrean Ibarran; zentroan biltzen ziren nazionalistak ezkutatu egin ziren edo alde egin zuten. Nafarrak sartu zirenean, apaiza ezkutatu egin zuten, eta horri esker salbatu zen.

11. Nafarrak Ibarran sartu eta "¡Viva España!" (IBA-001/017)

Hiru osaba gerran zituen: bat preso hartu zuten, bestea soldadu ibili zen eta hirugarrena boluntario joan zen. Nafarrek indar handia ekarri zuten Ibarrara etorri zirenean; UHPkoek etxean gelditzeko esaten zieten zibilei. Ibarra berehala hartu zuten nafarrek, "viva España" garrasika.

12. Nafarrak Ibarran sartu bitartean, beraiek etxean gordeta babesteko (IBA-001/022)

Nafarrak Ibarran sartu bitartean, etxean gordeta egon ziren tiroetatik babesteko.

13. Nafarrak Ibarran bizitzen (IBA-001/024)

Nafarrak Ibarran sartu ostean, soldadu asko Ibarran egon ziren bizitzen denbora batean. Maria Doloresen lagun bat soldadu haietako batekin ezkondu zen. Soldadu haiek artozko ogi borobilak izaten zituzten, eta Maria Doloresen familiakoak ur bila iturrira joaten zirenean, soldaduek ogi haietako bat ematen zieten.

14. Errazionamendu garaian nola-hala moldatu behar (IBA-001/031)

Errazionamendua zegoen garaian, baserriko jeneroa entregatu egin behar izaten zuten udaletxean. Errotak itxita egon ziren garai hartan, eta papera behar izaten zen artoa errotara eramateko; tranpak egiten zituzten orduan.

15. Errazionamendua denbora askoan (IBA-001/033)

Errazionamendua denbora askoan egon zen. Ogia etxera ekartzeko, ezkutuan egin behar izaten zuten. Elizari baserriko jeneroa eman behar izaten zitzaion.

16. Taloak egiten abila (IBA-001/034)

Etxean taloak Maria Doloresen prestatzen zituen. Taloak nola egiten ziren azaltzen du.

17. Eskolara Errepublikara garaian (IBA-002/002)

Errepublika garaian bederatzi urte zituen eta baserrian ez zen ezer jakiten. Eskolara orain Udaletxea dagoen eraikuntzara joaten zen. Jolastu egiten zuten.

18. Ibarra asko aldatu da (IBA-002/003)

Bizkardo baserrikoak nekazariak ziren. Ibarren landare asko saltzen ziren garai hartan. Lehen baratze handiak ziren lekuan orain etxeak egin dituzte. Ibarrek mila biztanle zituen. Orain lau mila baino gehiago.

19. Azokara landareak saltzera (IBA-002/005)

Garai batean Ibarako piperrek ez zuten famarik. Feria larunbatean izaten zen Tolosan eta Ordizian asteazkenean eta ostegunean Hernanin. Azoka horietan landarea saltzen zuten: aza, azalorea, letxuga eta abar. Landareak ehunaka saltzen ziren eta ehuneko erdiak eta ehunekoak eramaten zituzten astoan, lastoz loturik.

20. Tabako landareak jarri zituzten gerra garaian (IBA-002/006)

Prezioak ez ditu gogoan baino asko saltzen zutela bai. Gerra etorri zenean tabakoa jarri zuten hiru urtez eta Irungo fabrikara bidaltzen zuten. Handik aurrera landareak bakarrik. Tabako landarea udaberrian egiten zuten, maiatza aldera aldatu eta urrian moztu. Aurretik lorea mozten zioten eta horregatik hostoak metro bat luzatzen zitzaizkien. Eguzkitan moztu ondoren hostoak zimeldu egiten ziren eta horregatik ez ziren hausten. Bukatzeko, zintzilika jartzen zituzten plaza ondoko etxe batean. Hostoek kolorea hartu zezaten ilunpeetan egon behar zuten. Hiru hilabete lehortzen utzi ondoren Irunera eramaten zituzten. Hostoek puruen kolorea hartzen zuten.

21. Gau-eskolan etxean egindako puruak erretzen (IBA-002/007)

Ibarren Tolosako maisu batekin gau-eskola egiten zuten, erabat euskaraz. Hostoekin egindako puruak eramaten zituen eta danak erretzen ibiltzen ziren.

22. Puruak nola egiten zituen (IBA-002/008)

Puruak nola egiten zituen azaltzen du: hosto finenak hartu eta bueltaka-bueltaka bildu. Barruan txikitutako hostoak jartzen zituzten. Ez zen lotu beharrik, itsatsita gelditzen da. Gero lehortzen utzi behar da.

23. Tabako-hostoak Irunera bidaltzen zituzten (IBA-002/009)

Irunera tabako-hosto handiak bidaltzen zituzten. Kategoria desberdinetako hostoak izaten ziren eta desberdin ordaintzen zizkien. Irunera trenez bidaltzen zituztela uste du. Hori gerra ondoren izan zen. Inguruko beste batzuk ere tabakoa jarri zuten garai hartan.

24. Gerra hasieran kanoiak Tolosarako bidean (IBA-002/010)

Gerra hasi zenean, Berastegitik sartu ziren tropak Ibarren. Tolosara abiatu ziren Checa komandantearen atzetik, eta Tolosako batzokitik nazionalistek bota egin zuten. Orduan teniente koronelak bonbardatzeko ordena eman zuen. Kanoiak mandoarekin ekartzen zituzten. Berrobiko bidean taberna bat

zen eta herriko mutiak han ondoan jarri ziren dena ikusteko asmoz. Handik hogeit bat egunetara, Tolosa hartu zuten.

25. Falangistak Bizkardo baserrian lo egiten (IBA-002/011)

Falangistek Bizkardo baserrian egin zuten lo. Atzera eta aurrera ibiltzen ziren beraien fusilekin. Hura gogorra zela pentsatzen du.

26. Belabieta mendira belarra moztera (IBA-002/012)

Bi anaia zaharrenak gerrara eraman zituzten. Dionisio baserrian gelditu zen aita eta amarekin. Izazkun menditik barrena Belabieta mendira joaten ziren belarra ebakitzera. Segan ibiltzen ziren. Orain ez da inor joaten hura garbitzera. Oinez joaten ziren, sega eta mailua hartuta. Janaria eta ura ere eramaten zituzten. Etxekoak joaten ziren eta gurdi onekin belarra kargatuta etxera itzultzen ziren. Egutero egiten zuten joan-etorria.

27. Meta nola egiten zuten (IBA-002/013)

Lau behi, bi txekor, bi idi eta zaldi bat zituzten etxean. Horiei denei janaria emateko adina belar bildu behar izaten zuten. Belarrarekin meta egiten zuten eta meta egiteko modua azaltzen du.

28. Falangistek beldurra (IBA-002/015)

Gerra garaian, militarrek nola zebiltzan ikusi zuten. Gaiztoenak falangistak zirela iruditzen zaio. Cara al Sol abesten zuten, eta eskua altxa behar izaten zen. Falangistek beldurra ematen zuten. Jendea hiltzen zutela esaten zelako zuten beldurra. Frontean ere asko hiltzen ziren.

29. Osabak balkoitik salto egin zuen falangistengandik ihesi (IBA-002/016)

Falangistek janaria eman behar izaten zitzairen. Denbora gutxi egon ziren, eta joan zirenean bakea eman zuten. Jendea beldurrez ibiltzen zen. Aitak mendira alde egin zuen falangistak sartu zirenean. Osabak, Iturburu baserrikoak, balkoitik salto eginda alde egin zuen falangistak bere bila etorri zirenean.

30. Ibarran gutxi batzuk zeuden politikan sartuta (IBA-002/019)

Baserrietako jendeak ez zuen alde egin, baina Tolosako kaleko jendeak bai: alkateak, zinegotziek eta horrelakoek. Ibarran ez zegoen politikarik. Karlistak bazeuden. Errepublikanoak bi edo hiru. Komunistak ez zegoen. Sozialistak bi edo hiru. Gehienak karlistak ziren Ibarran.

31. Aita karlista (IBA-002/021)

Herrian karlistek agintzen zuten. Aita ere karlista zuen. Orduan esaten zutenez, familia onenak karlistak ziren. Tropek alde egin zutenean, aita etxera itzuli zen. Beste norbaiten salaketaren beldur izaten ziren. Tolosan 12 hil zituzten.

32. Tolosako emakume batek paketeak frontera eramaten zituen (IBA-002/024)

Anaiak gerran zeuden bitartean, Tolosako emakume batek, 'Kapaña'k, paketeak frontera eramaten zizkien. Bueltatzen zirenean, zorritz beteta etortzen ziren. 'Kapaña' emakume ausarta zen. Paketeetan janaria sartzen zuten.

33. Gerra Zibila bukatu ondoren, Europako gerrara joateko beldurrez (IBA-002/025)

Anaiak gerratik bizirik itzuli zirenean, pozik jarri ziren. Ondoren, Europako gerra hasi zen eta anaiak ia berriro joan behar izan zuten. Franco gerran sartu ez izanaz pozitu ziren.

34. Anaiak Europako gerran egon ziren (IBA-002/027)

Europako gerran urte pare bat edo hiru pasa zituzten Dionisioren anaiak. Itzuli zirenean pozik jarri ziren. Gutunak bidaltzen zizkien.

35. Bizi itxaropena asko luzatu da (IBA-002/029)

Gerrarik ez da izan ondoren eta ez da izango ere. Hobe ez izatea. Gerra denboran 88 urte arte biziko zela esan baliote ez zukeen sinetsiko. Gara hartan askoz gazteago hiltzen ziren, orain berriz asko 100 urte arte bizi dira.

36. Soldadu Donostian eta Hondarribian (IBA-002/030)

Soldadu hiru urte pasa zituen. Oraingo gazteek ez dakite hori zer zen. Lehenengo Donostiara joan zen. Handik Hondarribira, Guadalupeko kartzelara, guardiak egitera eramane zuten. Han zeudela tenienteak dei egin zion eta Donostiara joan behar zuela esan zion, Miramonera, militarrek bertan zuten etxe batera.

37. Militarren terrenoetan nekazari lanetan (IBA-002/031)

Orain erresidentzia dagoen lekuan, gerra ondoren militarren terrenoak zeuden. Berastegiko seme batek, Ibarrako Montes baserrian morroi bezala ibilitakoa, Dionisioren izena eman omen zion tenienteari baratzerako esku lana behar zutela esan zionean. Oinez joan zen Miramonera eta bertan Benito aurkitu zuen, Berastegiko laguna.

38. Militarren terrenoetan landatutakoa azokan saltzen zuten (IBA-002/032)

Benito, bere Berastegiko laguna, Hernaniko azokara joaten zen astean behin, landareak erostera. Landareak militarren terrenotan jartzen zituzten eta simaur asko zeukatenez lurra oso emankorra zen. Horrela Hernaniko landararik behar ez izatera iritsi ziren. Erreterriako azokara joaten ziren igandetan soberan zutena saltzera.

39. Negozioak militarren terrenoetako landareekin (IBA-002/033)

Erreterriako azokan, bezperan ateratako landarea saltzen zuten eta oso freskoa zenez, ordu batean dena saldu eta bi lagunak gosaltzera joaten ziren. Mandoarekin Miramonera itzulitakoan tenienteak dirua ematen zien egindako lanaren truke. 50 pezeta ematen zizkion bakoitzari, asko garai haietarako. Irabazitako beste dirua tenienteak gordetzen zuen eta horrela denak

negozioarekin pozik. Hiru urte pasa zituzten sasoi horretan, lan asko eginez, baina lanak ez du Dionisio beldurtzen.

40. Baratzeko lanak bizia ematen du (IBA-002/034)

Gaur egun ere lana egiten jarraitzen du. Baratzeak bizia ematen dio Dionisiori. Sasoi onean dago oraindik. Lana bere tamainan ona dela pentsatzen du. Baratzean ekoiztutako produktuak ekologikoak dira eta sano jaten duenez osasun ona dauka.

41. Baserritik kanpo lanean (IBA-002/035)

Soldadutzatik etxera itzultutakoan, aitak etxean lanik ez zegoela esan eta lana bilatzeko eskatu zion. Lehengusu batek esnea biltzeko langile bat behar zuen eta 1946ean hasi zen esnea biltzen. 62 urtez aita- semeak lan horretan jardun dute. Gazteluko esnea biltzen hasi ziren, gero Leaburukoa ere bai. Hogei urtez esne bilketaren ikuskaria ere izan da (esnearen ur kopurua neurtzeko).

42. Donostiako Grosen esnea banatzen (IBA-002/036)

Tolosara jaisten zen mandoarekin eta handik Donostiara joaten zen Groseko etxeetan esnea banatzen. Amezketatik etortzen zen kamioneta batean joaten ziren Donostiara. Saldu aurretik, esnea aztertu egiten zuten. Banaketa bizikletaz egiten zuen.

43. Kamioia esnea banatzen ibiltzeko (IBA-002/038)

Esnea kamioi batean banatzen hasi zen. Lan handia zuten.

44. Ibarran gertatutako bidegabekeriak (IBA-003/002)

Gerra ostean, errazionamendua kendu zieten. Izan ere, beraien etxean, PNVren batzokia zegoen, eta karlistak zeuden agintean. Anaiek ihes egin zuten herritik. Gurasoek gaizki pasa zuten. Bidegabekeria ugari gertatu ziren garai hartan Ibarran.

45. Dolarearekin lanean (IBA-003/006)

Lehen sagar kaxkarrenak sagardoa egiteko erabiltzen ziren; onenak, jan egiten ziren. Dolarearen egituraz eta funtzionamenduaz, eta sagardoa egiteko prozesuaz hitz egiten du.

46. Zubiaurre etxearen egitura lehen (IBA-003/010)

Zubiaurre etxearen egitura lehen nolakoa zen azaltzen du. Beheko solairuko tabernan, janaria saltzen zen. Goiko solairuetan, logelak, eta sagarren biltegia zeuden.

47. Eskolara ez joatearren, enkarguak gustura egiten (IBA-003/018)

Eskolara ez zuen joan nahi izaten. Amaren anaiak taberna zeukan, eta harentzako enkarguren bat egin behar zuen bakoitzean, gustura egiten zuen; izan ere, horrela, eskolara ez zen joaten.

48. Euskaldunon arazoa (IBA-003/020)

Eskolan "Viva España" abestu behar izaten zuten klase hasieran. Euskal Herrian ez diogu elkarri laguntzen, elkarri trabak jarri bakarrik.

49. Pulpituko galderen beldur (IBA-003/030)

Komunioa egiteko garaian, lotsa eta beldurra pasatzen zuten. Garai hartan, pulpitutik dotrina galdetzen zieten.

50. Ibarako piperrak lehen (IBA-003/038)

Piperrak lehen ere landatzen ziren Ibarra, baina ez orain bezain beste. Lehen alferrik galtzen zen janaria. Janaria nola kontserbatzen zuten azaltzen du.

51. Janari gutxi, baina elkartasuna (IBA-004/006)

Lo egiteko, binaka jartzen ziren. Otorduetan, denak elkartzen ziren mahai inguruan. Lehen gosea egon zen, eta dena jaten zuten, zegoena zegoela. Txerria hitzen zutenean, auzokoen artean banatzen zuten.

52. Behia hiltzean, banatu eta kontserbatu (IBA-004/015)

Behiren bat hiltzen zenean, banatu egiten zen auzokoen artean. Elkarri laguntzen zioten. Behiaren haragia nola kontserbatzen zuten azaltzen dute.

53. Osabari ikusten, ikasi (IBA-006/002)

Umetan osabaren etxera joaten zen; eta osaba soroko lanetarako tresnak egiten aritzen zen. Martzelinori hori gustatu; eta pixkanaka, arte hura ikasten joan zen.

54. Gurdia bere kabuz egin zuenekoa (IBA-006/003)

Behin, Martzelino mendira joan, egurra bota, eta baserrira ekarri zuen, gurdi txiki bat egiteko asmoz. Gurpilak egiteko, nola-hala moldatu zen. Gerora, kaxa bat egin zion gurdiari, eta jolasteko erabiltzen zuten gurdi hura.

55. Zurgintzarako zaletasuna lanbide bihurtu zenekoa (IBA-006/005)

13 urterekin, zurgintzarako zaletasuna lanbide bihurtu zitzaion. Aroztegian, baina, aurrerapenekin lan egitea arraro egiten zitzaion. Nahiago zuen makinarekin egin lan, askoz errazagoa baitzen.

56. Zurgintzako teknikak (IBA-006/006)

Arotz izateko, ikusi egin behar da lehenbizi. Denborarekin, teknikak menderatu egiten dira. Lehen lan egiteko zer pauso izaten zituzten azaltzen du.

57. Eskailerak egiteko erronka (IBA-006/007)

Arotz-lanetan, zeregin errazena leihoak egitea izaten zen; zailena, ordea, eskailerak egitea. Tolosako Doroteo Amondarain arotzak eskailerak egiten zituen, eta haren tailerrera joan zen lanera Martzelino. Doroteorenean, asko ikasi zuen. Marrazketako klaseetara joan zen Martzelino, eta dezente jantzi zen plano-kontuetan; maisua ingeniaria zen, don Tomas Yarza.

58. Makina iristean, eskulana atzera (IBA-006/008)

Makina bidez hasi zirenean eskailerak marrazten, atzera gelditu ziren.

59. Hemengo haritzaren lehia (IBA-006/010)

Hemengo haritza ona da lanerako, baina bere garaian bota behar da. Gerora, atzerritik oso egur ona hasi zen etortzen; eta aurrea hartu zion hemengo egurrari.

60. Zuhaitzak bere garaian botatzearen garrantzia (IBA-006/011)

Egurra garai txarrean botaz gero, harra sortzen zaio. Lehen Landetako egur asko jartzen zen; baina, denborarekin, ikusi da egur haiek ez zirela behar zen garaian botatzen; eta, horregatik, pipiak jo ditu.

61. Urtaroa eta ilargia, zuhaitzak botatzeko ardatzak (IBA-006/012)

Egurra neguan bota behar izaten da, ilargiaren egoerari kontuan hartuta.

62. Egurra vs zura (IBA-006/013)

Egurra eta zuraren arteko aldeaz hitz egiten du.

63. Aroztegiko produktuak eta materialak (IBA-006/014)

Etxeko altzariak ere egiten zituzten aroztegian: logelako altzariak, ateak, solairuak... Baserriko tresnak egiteko, haritza eta makala erabiltzen zituzten. Baserriko tresnen izenak aipatzen ditu.

64. Aurrerapenei esker, astoek lan gutxiago (IBA-006/016)

Lehen, astoak garraiatzen zituen gurdiak, eta hartarako kakoak egiten zituzten aroztegian. Aurrerapenekin, baina, behar hori galdu egin da.

65. Egurra mozteko tresnak (IBA-006/017)

Egurra mozteko zer tresna erabiltzen zuten azaltzen du. Haiek zorrozteko, nola-hala moldatzen ziren.

66. Zuhaitza non, nola eta zer preziotan bota (IBA-006/018)

Zuhaitza botatzeko, bi lagun behar izaten ziren. Zuhaitzak hainbat basotatik ekartzen zituzten. Beraiek baso partikularretatik ekartzen zituzten normalean. Orduko prezioak.

67. Zuhaitza nola garraiatu? (IBA-006/019)

Basora oinez joaten ziren zuhaitza botatzera. Zuhaitza idi parearekin garraiatzen zuten.

68. Enborrak Ibarako zerrategira (IBA-006/020)

Enborrak botatakoan, zerrategira eramaten zituzten. Ibarra bazen zerrategi bat, eta normalean hara egur asko joaten zen.

69. Egurra garraiatzeko tresnak (IBA-006/021)

Egurra garraiatzeko, zer tresna erabiltzen zituzten aipatzen du.

70. Egurra lantzeko prozesua (IBA-006/022)

Zerrategian, egurra lantzeko prozesuaz hitz egiten du.

71. Egurra neurtzeko teknikak (IBA-006/023)

Egurra lantzeko neurriez hitz egiten du. Egurra neurtzeko teknika bereziak erabiltzen zituzten batzuek.

72. Zurgintza aurrerapenak iritsi aurretik (IBA-006/024)

Arotz-lanak eskuz egiten zituzten garaian, zer teknika eta tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

73. Egurra xaflatzen (IBA-006/025)

Egurra xaflatzeko zer egiten zuten azaltzen du.

74. Zurgintzan aldaketa handiak (IBA-006/026)

Lehendik hona aldaketa asko egon dira arotzerian; bereziki, aurrerapenetan. Gaur egungo makinekin, askoz azkarrago egiten dira lanak.

75. Soldadutzako bizimodua (IBA-006/027)

Soldadutzara joan zenean, ilea moztu zioten. Bakoitzari buzo bat eman zioten; oso gogorra egiten zitzairen soldadutzako bizimodua. Orduko eginkizunak eta ohiturak aipatzen ditu.

76. Soldadutza ere arotz (IBA-006/028)

Soldadutza, arotzegian egotea tokatu zitzaion. Arratsaldeetan libre egoten ziren, eta merienda jatera joaten ziren. Orduko janariaz hitz egiten du.

77. Soldadutza = denbora galtzea (IBA-006/029)

Soldadutza ia bi urte egon zen Martzelino, beraiek esan arte. Eta eskerrak bukatu zen soldadutza. Intsumisioa gauza ona iruditzen zaio, denbora galtzea iruditzen baitzitzaion hura. Behin, hilabeteko baimena izan zuten etxean egoteko, baina 8 pasa zirenerako, berriro itzultzeko abisua iritsi zitzaion.

78. Soldadutza erdara egiteko komeriak (IBA-006/030)

Soldadutza zebilen garaian, erdara gutxi zekien, eta ahal zen bezala moldatzen zen. Baziren batzuk, ordea, erdaraz tutik ez zekitenak. Gaur egun, oraindik ere elkartzen dira soldadutzako lagunak.

79. Soldadutzara... zertara? (IBA-006/031)

Soldadutzari buruzko iritzia ematen du. Ez zituzten ondo tratatzen, eta alferrik eramane zituzten hara, ez baitzuten ezer erabilgarri ikasi.

80. Sukaldaritzako klaseak ematen (IBA-008/003)

81. Dantza lotuan egiteko komeriak (IBA-008/006)

82. Kanpaiak jotzen kanpandorrean (IBA-008/007)

83. Hil-kanpaia (IBA-008/008)

- 84. Olio Santua eramaten hil zorian zegoenari (IBA-008/009)**
- 85. Bataioa eta "Elizan Sartzea" (IBA-008/012)**
- 86. Aita-ama pontekoek erabaki izena (IBA-008/015)**
- 87. Su-kanpaia eta festetako (IBA-008/016)**
- 88. Sakristauaren eta seroraren lanak (IBA-008/018)**
- 89. Inauterietan Tolosatik Ibarrara azkar pekatarien alde errezatzera (IBA-008/020)**
- 90. Mariaren Alabak eta Luistarrak (IBA-008/021)**
- 91. Dotrina eta otoitzak dena erdaraz (IBA-008/022)**
- 92. Guardia Zibilak euskarazko liburu guztiak kendu (IBA-008/023)**
- 93. Euskaraz ez jakiteagatik lotsatuta (IBA-008/024)**
- 94. Txerri-opariak apaizarentzat eta medikuarentzat (IBA-008/026)**
- 95. Lutoa eta luto erdia (IBA-008/027)**
- 96. Arrosarioaz azalpenak (IBA-008/030)**
- 97. Bost eta hamabost misterioko arrosarioak (IBA-008/032)**
- 98. Aitaren eta Aingeru Guardakoari otoitz etxetik irteterakoan (IBA-008/034)**
- 99. Ogiari gurutzea eta mun (IBA-008/035)**
- 100. Mezak eta bederatziurrenak (IBA-008/036)**
- 101. Aste Santuko errezu etengabea (IBA-008/037)**
- 102. Ura eta sua bedeinkatzen larunbat santu egunez (IBA-008/038)**

103. Gurutzeak ipintzen Santa Kruz egunez (IBA-008/042)

104. San Bartolome, Ibarako festak (IBA-008/045)

105. Tomate-landarea prestatzen (IBA-008/047)

106. 30 urtez tabernari (IBA-008/050)

107. Poz-pozik tabernan (IBA-008/052)

108. Bertsoak txikitoa pezetara igotzeagatik (IBA-008/053)

109. Astakumea erreta ipini zueneko (IBA-008/055)

110. Txikiteoa handia eguerdian (IBA-008/057)

111. Arriskuaren kontzientziarik ez (IBA-008/060)

112. Gose-denborako kontuak (IBA-008/062)

**113. Anaia bat hil eta beste bat zigor-zelaian
(IBA-008/063)**

114. Ama egunero Donostiara berdurarekin (IBA-008/067)

115. Baratzeko lanak (IBA-008/068)

116. Amak inoren ume bi hazi (IBA-008/070)

117. Elgorriaz hil umeak (IBA-008/072)

118. Kukurruku-eztula (tosferina) (IBA-008/074)

119. Futbola eta baloia (IBA-009/007)

Umetan beti futbolean ibiltzen ziren. Baloi bakarra zeukaten, eta ondo zaintzen zuten. Baloi hura nolakoa zen azaltzen du. Plazan jokatzen zuten futbolean, mutilek bakarrik.

**120. Umetan, pilotan jokatze txandaren zain
(IBA-009/019)**

Pilotarekiko zaletasuna izan du Juanitok gaztetatik. Frontoi bakarra izanda, jokatze txanda noiz iritsiko zain egoten ziren denak. Orduko jolasak aipatzen ditu.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com